


N

.u.

H A M A B O S K A R I A

2001ko urtarilaren 26a VI.urtea

Usurbil, 105. zenbakia



Basurdeak ugarituz, ehiztariak atzetik



Udalarrerregi



PARTAIDE
Ikastolak

Ikastola

2tik 16
urtetara



xHaur Hezkuntza

(2-6 urte)

xLehen Hezkuntza

(6-12 urte)

xDerrigarrezka



Bigarren
kuntza

Hez-



MATRIKULAZIO

EPEA:

Otsailaren 5etik

Otsailaren 16ra

Ordutegia

etara

Goizez: 10etatik 11etara

Arratsaldez: 15:30etatik

16:30

Telf; 943 36 12 16

Txerrimunik ordainetan



Dagoeneko urte bat gehi-
go igaro da. Hurrengo
otsailaren 1ean eta 5ean
ospatuko dugu. Ondo pasa
eta zorionak!



Laister zure aurreneko urtebetetzea izango
da. Zorionak **Ainara!** eta egun berezia izan
dadila. Muxu haundi bat alfa eta amaren
partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako,
ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide
direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko
testua eta argazkia.

Hurrengo alea: otsailaren 9an
Ekarzako azken eguna: otsailaren 2a

Jaiotzak

**Xabat Iturrioz
Uribe**

2000-11-30

Kalezar

**Ane Udabe
Maiz**

2001-01-01

Kalezar

**Jon Uli
Arruti**

2000-01-06

Kaleberri

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Oriotik

**Aiatik

*Orioraino **Aiaraino
■ Asteburutan

■ Asteburutan

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Otsaila

Astel. Astear. Asleaz. Osteg. Ostira. Larun. Igand.

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28				

● Noaua! aldizkaria

ai, esan

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udaregi ikastola 36 12 16
- Udaregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi gettokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 47 09 76
- Iturralde farmazia 47 09 76
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarte 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

3er irizten?



Argitaratzailea

Noaia! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaidea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaia.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaia/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-688-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaia! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaia! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Iñaki eta Xeberro Portularrume beren kuadrilako ehiztari eta harrapatutako basurdeekin.

Behi eroei adarretatik helduz

Behi eroen gaitzak sortu duen eztanda izugarria izan da Europa eta Euskadiko okela sektorearentzat, bai ekoizle bai kontsumitzaileentzat.

Okela ekoizten dugunoi behi eroen gaitzak bi gauza erakutsi dizkigu: lehen lehenik gure haziendaren elikadura zein garrantzitsua den, bai animailentzat baina baita geure kontsumitzaileentzat ere; eta bestetik, nabarmen geratu da komunikabideen indarra eta kontsumitzaileen mugimenduek duten itzala. Gaur egun, baserritarron aldetik ez da nahikoa behiak gizentzea eta gero beste ezer egin gabe akabatzea, kontsumitzaileek behia ondo eta naturalki gizendua izan denaren ziurtagiri eta bermeak exijitzen baitzikigute. Honen aurrean, label-aren antzeko tresnek sekulako balioa dutela aitortu beharrean gaude, kontsumitzaileei konfidantza ematerakoan behintzat.

Ez da nahikoa gauzak ondo egitea; kontsumitzailea ondo informatu eta lasaituko duen bermeak ematea ezinbesteko baldintza dugu gaur egun.

Behi eroen gaitzak ere, argi eta garbi plazaratu du, kontsumitzaileen joku bikoitza; alde batetik urte osoan soil-soilik prezioan oinarrituz eros-

ketak eginaz, eta bestetik horrelako krisialdiak sortutakoan punta batetik bestera pasaz, okela ez kontsumitzera helduz.

Egoera lasaia denean eta elikadura inguruko inongo krisialdirik ez denean, kontsumitzaileak lasai asko egiten du bere erosketa, okelaren kalitatean, jatorrian eta animalien elikaduran batere erreparatu gabe, azken batean, elikaduraren aurretik beste lehentasun mota batzuk dituelako (bidaiak, etxetik kanpo afaltzea, erropa, etb.) eta maiz entzuten dugun bezala *"denetara ez da iris-ten"*.

Aldiz, elikagaien inguruan krisialdia sortu eta komunikabideetan berri deigarriak ugaritzen hasten direnean, kontsumitzailea berehala bel-durtzen da eta bere kontsumoa beste produktu batzutarantz bideratzen du, jarrera honekin bere lanak ondo egi-ten dituen baserritarra kalte-tzen ari dela ohartu gabe eta hain zuzen ere, okela kontsumitzeko unerik egokiena kontrolak indartzen diren krisialdi uneok direla kontuan hartu gabe.

Mikel Arteaga
Gipuzkoako EMBAko
lehendakaria



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Manuel Galarraga Huegun

Hamar urtez ibili zen pelotari moduan afizionatu mailan. Orain gazte jendeak lehengo afizioa ez duen arren, egoera ona dela dio.



Pelotaria izandakoa zara ezta?

Orain dela bederatzi urte arte ibili nintzen, hamar bat urtez. 23 urterekin hasi nintzen eta.

Nola sortu zitzaizun zaletasuna?

Orduan denok ibiltzen ginen pelotan eskola mailan, anaia ere nahiko ondo ibiltzen zen eta hura ikusiz, ni ere hasi egin nintzen. Afizioa baino gehiago bizioa sartu zizaidan niri.

Afizionatu mailan ibili zinen. Txapelketarik irabazi al zenuen?

Bai dexente irabazten genituen. Usurbilen eta beste herri batzuetan ibiltzen ginen, Lezon, Antiguan... Eta ondo ibiltzen ginenez udaran Euskal

Herritik kanpora ere ateratzen ginen Segovia, Soria...aldera joaten ginen asteburu batzuetan.

Eta han bertakoen kontra jokatzeko al zenuten?

Bai. Han afizio ikaragarria zegoen, herriko festarik haundiena izaten zen hura. "Los vascos" deitzen ziguten han.

Nolakoa zen giroa pelota munduan garai hartan?

Usurbilen txapelketa udazkenean jokatzeko zen eta Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketarik onena izaten zen. Usurbilen oso giro ona izaten zen.

Eta pelotarien artean nolakoa izaten zen giro hori?

Sekulakoa izaten zen. Beti zen baten bat begiz jota edukitzen zenuena, baina orokorrean oso giro ona zegoen gure artean. Garai hartan oraindik lagun diren lagun haundiak egin nituen.

Nolakoa da pilotariaren bizitza?

Gogorra da oso. Gero, bakarrik sentitzen zara jendearen aurrean, futboleko adibidez taldean sentitzen zara, baina frontoian nahiz eta binaka izan, akats guztiak ikusi egiten dira, ona baldin bazara ikusi egiten da eta, baita ezin baldin baduzu ere.

Gaur egungo egoera nola ikusten duzu? Jarraitzen duzu ala utzia duzu?

Ez dut gehiegi segitzen. Usurbilgo egoeraren berri izaten dut noizean behin galdetzen dudalako eta zerbait badakit, baina ez dut nahiko nukeen guztia segitzen.

Eta profesional mailan nola ikusten duzu egoera?

Sekula baino hobea ikusten da eta telebistan hain indar haundiarekin sartu denetik gehiago oraindik. Pelotariak onak eta maila kaskarrekoak daude, beti bezala. Hala ere, profesional mailan jende gaztea pelotalekuek ez ote den joango beldur piska bat badaukat. Kirol mota asko daude eta beste kirolekarako joera haundiagoa izan daiteke.

Etorkizunik ikusten al duzu pelota munduan?

Bai. Jendea geroz eta gehiago prestatzen da. Baina gazte jendeak ez du bizitzen garai batean bezala, lehen dena pelota zen, orain beste kirol batzuek indar haundiagoa hartu dute eta jende gehiago mugitzen dute. Komeriak izango dira hemendik aurrera, Usurbilen ere jende gaztea gutxi joaten da pelota partiduetan ikustera, lehen astegun batean berrogeita hamar bat lagun erraz biltzen ziren frontoian, orain berriz... Lehen jendeak ikusi egiten zuen eta orain bizi: eskiatzera joaten dira, mendira...

Nolatan utzi zenuen pelota?

Dudarik gabe adinean aurrera nindoalako. Niretzat pelotak bi zati ditu: nork bere gozamenerako pelota eta ikusleen gozamenerako pelota. Erretiroa hartzerakoan handik aurrera ikusleei ikuskizun gutxi eskaini niezaiekeela ikusten nuen. Gainera, atzetik zetozen herriko pelotariekin, batez ere birekin, aurrera aterao zirenaren itxaropena banuen, baina ezin dut ulertu, eta pena haundia daukat, zergatik geratu diren erdi bidean. Badaikit eskuetako mina izan zela tarteko baina...

Zure kontura jokatzeko hasteko asmorik ba al duzu?

Bai. Lagun artean beti ibiltzen gara asteen pare bat aldiz edo jokatzerako joan behar dugula esanez, baina palan edo.

Olatz Lasagabaster

TXOKOALDE

Frontoia argirik gabe

Hasteko eta behin betiko argi uztekotan, askotan aipatu dugun kontu bat berreskuratu nahi genuke: frontoian ez dago argirik. Urtarrileko bigarren astean zehar kendu zuten argia bertatik.

Dirudienez, norbaitek argi instalazioan "eskua sartu" du eta orduztik, hau ez dabil behar bezala. Gure iturrien arabera, auzoko inork ez du ekintza hauetan inongo parte hartzerik izan. Antza denez, auzoko frontoira sarritan etorri ohi diren batzuk (gau partean ziurraski) manipulatu dute aipaturiko instalazioa, argirik ez zegoela eta, hau jarri nahian.

Mesedez eskatuko genuke, denon onerako baita, honelako gauzak ez gertatzea. Argia ordu gehiagoz piztuta eduki nahi izanez gero, Udalean eskaria egitea besterik ez dago, inongo instalaziorik ukitu gabe.


Hala ere, gaueko 22:00ak arte piztuta edukitzea nahikoa iruditzen zaigu, auzokoak molesta baitaitezke ordu horietatik aurrera.

Beste gai bati helduz, auzoko zubian hilabeteak lanean aritu direnek, itxuraz, behintzat, ez dute ezer asko egin. Horrenbeste denboran asfaltatu eta txukun antzera geratuko zenaren

Imanol Goenaga



itxaropena genuen arren, azkenean emaitza "kaka-lana" izan da. Besterik gabe, datorren Noaualra arte, ea orduan kontu baikorragoak ditugun esateko.



KALEBERRI

Santa Ageda bezpera oroitzuz

Urtero legez, otsailaren 4a Santa Ageda bezpera izango da, aurtengoan igandea, gainera. Hau dela medio, eguerdiko 12etatik hasita, Bota Punttuba bertso eskolak antolaturiko eskea frontoi atzetik irtengo da, Euskal Herri osoan hedaturik dagoen ohitura zahar hau berriro ere gogoratzuz.

Ohitura honen nondik norakoak aztertu zituen Joxe Mari Satrustegi euskaltzain arruazurak iaz hitzaldia eskaini zuen herrian aipatu ohitura azalduz. Esan zuenez, ez dago hain garbi ohitura zahar honen jatorria. Berak ikertu duenaren arabera, honako aztarna hauek atzeman daitezke: Nafarroan

zein beste herrialde batzuetan mutil ezkongabeak baino ez dira irteten Santa Ageda bezperan. Kalejiran eta etxez etxe kopletan abesten dihardutela, mutil hauetako batek neskaren baten aipamena eginez gero, mutilaren "uztarketa" aitortzen da. Beraz, ezkonduz gero datorren urteko eskeak kide bat gutxiago izango du. Hala eta guztiz ere, badira neskak bakarrik irteten diren herri gutxi batzuk. Hau guztia ikusita gartzaroari lotuta dagoela esandaiteke.

Bestetik, egun abesten diren kopletako letrek argi esaten dute usadio honen jatorria: Santa Agedari bularrak kendu

zizkiotela gogoratzea. Hau izan zen bere birjintasuna jauntxo baten aurrean galdu nahi ez izanaren zigorra. Hau Palermo aldean eman zen III. mende inguruan. Gure lurretan, adiz, aurrez ere bazen ohitura honen arrastorik, gertaera hau eman zenetik kristautasun kutsua hartu bazuen ere.

Honetaz guztiaz gain, ohitura honek badu zerikusirik urte sasoi berriaren etorrerarekin, inauterrien antzera. Urte zaharra agurtu eta berriari ongietorria egiteko modu bat izan daiteke. Ezaugarri hau inauterrien kasuan argi badago ere, Santa Ageda egunean ez da hain ziurra.

Iñaki Agirresarobe



KALEZAR

Joseba Pellejero



He...he...he...hementxe gea ba!

Hementxe gatoz berriro ere, urte berria agurtuz, zuen esku artera. Gaurkoan bi albisterekin gatoz zuen gustukoak izango direlakoan: lehen-



dabizi Kalezar goi partera (aurtengo neguaren joera ikusita, hego-haizea latz jotzen duen tokira) joango gara bueltatxo bat egitera, Entzarrainera. Bertatik, Egi-Luze baserrira abiatuz, 300 metrora pinudi ikusgarri bat dago (berria txori txiki batek emana da), Bizkarre baserriko lurretan, hain zuzen ere. Berrogei bat urte omen dituzte bertako zuhaitzek (Usurbilen egongo dira zahartxoagoak! esango du bakarren batek), baina ikusgarriena pinu batzuen sasoia da.

Altueraz gain, gerri-buelta da deigarria, 3,88 metroko perimetra duen pinua dago tartean, benetan ikustekoa, lur oparoan hazitakoa izango da nonbait. Beste horrelakoren bat

egongo ote da Usurbil osoan? Urte batzuk barru, zenbat gehiago haziko zaizkigu? Jarraipena eman beharko diegu.

Bestetik, jakinaren gainean egongo zarete gehientsuenok, baina esango dizuet badaezpada ere, Udaletxe ondoko nekazari kooperatiba (sindikatura) gure auzora ekarriko dutela aste gutxi barru. Ugarte atzealdean joango da pabeloi berria eta orain arteko martxa berbera jarraituko du. Joxe Ramon eta Maixabel bertan izango ditugu gure zerbitzura.

Janari denda bat bera ere ez dugu auzoan, baina laistera, animalientzat, behintzat, izango dugu. Adio!

ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieto



Beherapenak

Aurten ere, urtero bezala, etorri zaizkigu beherapenak. Gabonak eta erregeak pasa ditugu eta hor ditugu, bete-betean, ohiko eskaintzak, inoiz baino aukera zabalagoarekin, gainera.

Izan ere, aurtengo udazkena euritsua izan arren, ez du hotzik egin eta, ondorioz, ez dugu beroki askoren premiarik izan. Hala, iazko arropa erabili ahal izan dugu eta dendetan bada zer ikusia eta zer erosia. Gero eta gauza politagoak aurki daitezke, gainera, eta hortxe dago eztabaidaren gakoa, zer egin? Nola asmatu?

Askotan ez da batere erraza

polita, merkea eta ona aurkitzea. Non ote dago hau? Non aurki daiteke? Gainera, eguraldiarekin asmatzea ere ez da batere erraza eta ez dakigu, gaur erositako berokia, zenbatetan erabiltzeko premia izango dugun.

Gaia zeharo aldatuz, gure Udalari eskerrak eman beharrean gaude, batez ere etxean txakurrak dituztenak. Azkenean txakur behar-

tarako zakar ontziak jarri dituzte. Benetan garrantzitsuak dira hauek, ez baita batere atsegina edozein txokoetan zakurrak bat topatzea eta, txarrean, hau zapaltzea. Ea, bada, ahalik eta garbien gordetzen ditugun gure bazterrak.



SANTUENEA

Alfonso Vidal



Elkarteen arteko mus txapelketaren finala

Urte berriarekin bat herriko muslariak gustura egoteko moduan daude, urtero bezala, aurtan ere martxan baita herriko elkarteen arteko mus txapelketa, dagoeneko bere azkenengoetan, gainera.

Herriko bederatzi elkartek parte hartu du aurtengoan: Mahaspildegi, Aginaga, Aitzaga, Eguzki, Andatzpe, Peña Pagola, Joko Garbi, Erroizpe eta gure auzoko Ibai-Ondo elkartek.

Gurean duela bizpahiru aste izan zen txapelketa. Bertan zortzi bikotek parte hartu zuen eta, azkenean, **Enrike eta Anjel**

Mari Uli eta Urdaira eta Mini izan ziren garaile. Bi bikote



hauek jokatu dute urtarrilaren 27an aipatu txapelketaren finala, beste elkarte bakoitzeko bikote banarekin batera. Finala Mahaspildegi elkartean izango da.

Iaz Santuenea auzoa nagusi izan zen mus txapelketa honetan, Hilario eta Ramon izan baitziren garaile. Ea aurtengoan ere zorte berdina dugun eta saria gure auzoan geratzen den. Era-kutsi dezagun herrian muslari benetan iaioak ditugula Santuenean. Zorte on guztiei, baina bereziki gure auzokideei!

URDAIAGA

Eider Jauregi



Hau da komeria!

Hainbeste egunen buruan, hainbeste jai eta ospakizunen ostean... zerbait izango da, ba, kontatzeko goialde honetan? Izan, izango da. Ni ez naiz, ordea, San Estebango kronista bakarra eta ia-ia borroka garbian aritzen gara hirurok gaia nork topatuko.

Hau kontu zaharra da. Hemen, gehienetan, "zaharrak berri" izaten baitira eta nahikoa nekeza izaten baita tarte txuri hau txukun eta ganoraz betetzea. Beste askotan handik edo hemendik izaten dugu pasadizuren bat, gertaeraren bat. Oraingoan, ordea, ezer gutxi konta dezaket. Huts egin

dut, ez baitakit zer esan, edo hobe, zer idatzi. Eguraldiari buruz idaztea? Hau ere betiko gaia dugu. Jende gutxi dabilela? Hori ere ez da harritzekoa urte sasoi honetan, baina, tira, zer egingo zaio ba?



Espero dut hurrengo kronika iristerako zerbait itxurosoagoa prestatua izatea. Istorio edo gertakizun zahar edo berriren bat, gutxienez. Baina guk bete beharreko pasarte hau gaurkoa baino ganora gehiagokoa izan dadila, ezta? Espero dut hau egia izatea eta oraingo honetan gertatutakoa berriz ere ez ematea.

Bitartean, garai honetan benetan eder izaten diren gure inguruneak bisitatzea gonbidatuko nituzke guztiak. Hala "sikira" izango dugu zer kontatua, bata etorri dela eta beste erori dela esanaz.

AGINAGA

Herriko kontuak

Hainbeste kexa jaso ondoren, ezin geratu tartetxo honetaz baliatu gabe. Izan ere, azkenaldian Erriberako bidearen inguruko kexa ugari entzun baitut bertan lurrak dituzten baserriarren ahotik, denak zulo eta lokatzez josiriko bide hau Udalak noiz konponduko zain baitaude.



Beste gai bati helduz, ezin aipatu gabe utzi azkenaldi honek Aginagako elkartearen jendea erruz dabilela, gazteak batez ere. Gero eta jende gazte gehiago ari da elkarteak bazkide egiten eta, ondorioz, soziedadean sekulako "martxa" izaten da hauek asteburuetan antolatzen dituzten afarietan.

Oskar Santamaria



Honegatik, benetan deigarria da elkarteak bazkide kopuruaren gorakada ikustea. Hala, egun 90 pertsona inguruk osatzen dute bertako bazkide zerrenda.

Elkarte kontuetan ari garela, Usurbilgo elkartearen arteko txapelketa dagoeneko martxan da. Larunbatean, hilak 27an, izango da finala Atxegaldeko Mahaspildegi elkartearen. Aginagako txapelketa jokatu ostean, **Ramon Pikabea eta Ramon Beloki eta Joxe Larburu eta Joxe Mari Salsamendi** izango dira final haundira pasako direnak. Ea zorte ona duten aginagatarrek.

ZUBIETA

Jon Tapiari herri-bisita egingo zaio

Jon Tapiari bisita egiteko herri-martxa urtarilaren 13an ailegatu zen Puerto de Santa Mariara, Cadizko probintziara.

Jonen askatasunaren aldeko plataformak antolatuta, bezperan, ostiral arratsaldean abiatu zen autobusa Zizurkildik. Larunbat goizean iritsi zen 27 lagunekoa taldea Jon kartzelaratuta dagoen presondegira, bidaia luze, oso luze, baten ostean.

Haraino joandako herritarrek oihu, irrintzi, txalaparta, trikitixa, bertso, etxefero,... zer ez zuten erabili kartzelako paretatzarrak

gainditzeko! Berotasuna eraman zuten kartzela hotz eta gogor hartara. Nahiz kontrol zorrotza ezarri zen, euskaldunon deiadarra ozen entzun zen Pto. de Santa Marian.

Aurretik, plataforma horretako delegazio batek espetxezaintzako epailearekin eta kartzelako zuzendariarekin bilera bana egiteko aukera izan zuen.

Esan zitzaion Jonek dagoeneko kalean behar lukeela, baita beren legeria aplikatuta ere. Esan zitzaion euskal presoak modulu desberdinetan banantzea ankerkeria justifikaezina

Xabier Arregi



dela. Hain zuzen ere, egoera hori dela eta, hiru hilabete daramatzate euskal presoek beren ziegetan entzerratuta, patiora atera gabe. Esan zitzaion egoera hori irtenbide bidezkoa eman behar zaiola luzagabe.

Horiek eta beste hainbat kontu esan zitzaizkien; hemen-dik aurrera ikusiko dugu zer eragin duten.

Kontuak kontu, Jon eta gainontzeko presoak kartzelatan dauden bitartean euskaldunon deiadarrak paretak gainditzeko segi beharko du, eta segituko du.

Drogamenekotasunak herrian duen eragina aztertuko duen ikerketa martxan jarri da

Udalak Askagintzaren eta Izadia Gizarte Gaiak Ikertzeko Kabinetearen "Drogamenpekotasunen komunitate prebentzio-rako egitasmo lokala" izeneko Ikerketa proposamena onartu du. Ikerketa bederatzi hilabetekoa izango da eta honen ardura Askagintzako koordinatzaileak, Izadiko tenknika-riak eta herritar batek izango dute. Ikerketa honek hiru urteko iraupena izango duen Egitasmo Lokal bat diseinatzea du helburu.

Ikerketa honen bitartez, drogamenpekotasunen fenomeno sozialari erantzun bat eman nahi zaio. Egitasmo honen helburu nagusiak hiru izango dira; batetik, fenomenoaren errealitatea aztertu, bestetik, drogamenpekotasunak herrian duen eraginaren diagnosi amankomuna osatu eta, azkenik, Drogamenpekotasunen Egitasmo Lokala diseinatu.

Ikerketa soziologiko hau iraila arte luzatuko da eta bertan ikerketa-aldi ezberdinak egongo dira.

Lehen hilabete honetan ikerketaren diseinua prestatzen dabilta; herriari buruzko datu-bilketa, herriari buruz egindako ikerketen bilketa eta Euskal Herriko beste zenbait komunitateetan droga-kontsumoari, irudikapen sozialari eta abarri buruz egindako ikerketa ezberdinen bilketa, etab.

Hurrengo bi hilabeteetan zehar, Entzute-aldia deritzon-ean, herrian drogamenpekotasun fenomenoak islatzen dituen errealitate eta eragin ezberdinen azterketa egingo dute. Fase honetan, elkarriketen bidez, instituzioetako ordezkariak eta talde nahiz



sektore sozial ezberdinei zuzenduriko entzute-prozesua bat irekiko da. Ondoren, dokumentu bat eratuko da.

Prebentzioaren bitartez, drogamenpekotasuna sortzen duten faktoreak eraldatzeko ekintzak sortu nahi dira.

Fase hau amaituta, hurrengo hiru hilabeteetan, gutxi gora behera, drogamenpekotasunen fenomenoaren diagnosis osatuko da; hau da, entzutealdian jasotako datuen interpretazioa egingo da eredu psikosoziokulturalean oinarrituz. Era berean, eztabaida taldeak osatuko dira gazte, guraso, hezitzaile edota arlo ezberdinetako profesionalekin. Talde bakoitzean jasotako datu eta ekarpenen inguruan eztabaidatu ahal izango da.

Horrela, dagoeneko ikerketaren azken fasera iristen gara, Egitasmo Lokalaren Diseinurako aldira, hain zuzen ere. Egitasmo lokal honek, ikerketa

burutzen denetik hiru urteko iraupena izango du. Hori dela eta, fase honetan egitasmoaren helburu orokorrak eta operatiboak zehaztuko dira.

Honez gain, prebentzio mailan (familian, eskolan, esparru irekian eta komunitate esparruan) informazio, aholkularitza eta gizarteratze mailan garatu beharreko bitartekoak eta irizpideak ere agertuko dira. Prebentzioaren bitartez, drogamenpekotasuna sortzen duten faktoreak eta zergatiak eraldatzeko ekintza planifikatuak osatu nahi dira.

Partehartze zabalaren bila

Prozesu honetan guztian taldeak, elkarteak eta herritarrak orokorrean, gai honetan inplikatzera animatuko dira; hau da, prebentzio-ekintzarako subjektu bilakatzerak, ikerketan eta egitasmoaren diseinuan parte hartuz. Azken batean, herrian Drogamenpekotasunaren Komunitate Prebentziorako gizarte inizatibian lan egingo duen talde bat eraiki nahi dute eta parte hartu nahi duten guztientzat irekia mantenduko da.

Agurtzane Solaberrieta

Zubietako plan partzialarekin gora eta behera

Zubietako plan partziala inoiz amaitzen ez den ipuinaren modukoa bihurtzen ari da. Oraingoan urbanizazio kostuen inguruan zenbait arazo izan dituzte. Urbanizazio kostuek goruntz egin dute, 330 milioitik 500 milioira. Izan ere, urbanizazioa nolakoa izango den onartu bitartean denbora asko pasa da eta orain balorazio berria egiterakoan kostuen igoera nabarmena izan da. Horrez gain, urbanizazioetan egindako zenbait zabalakuntzek ere eragin dute igoe-ra hori.

Guzti honen ondorioz plan partziala blokeatuta egon da. babes ofizialeko etxebizitzei

urbanizazio kostuetan dagoen diru kopurua arauditik kanpo zegoen, eta egoera hau gainditzeko, bi bilera egin ondoren, Usurbilgo eta Donostiako udalek 50 milioi pezeta jartzea erabaki dute, bakoitzak 25 milioi pezeta. Honela, plan partzialarekin moduan dira orain.

Urbanizazio horren barruan, bi norabidetako bideak zabaldu egin dira, Zubietatik pasako den bidea (bariantea deitzen dioten hori) kaxkotik ez da pasako, urbanizazio bukerako zenbait bide herri bidearekin lotuko dira... Guzti hau kontuan hartuta erabaki dute bi udalek 50 milioi jartzea.



Herriko enpresetan euskararen egoera aztertuko da

EMUN kooperatiba elkarte-ko teknikoak Usurbilgo enpresetako euskararen egoera aztertzen hasiko dira laister. Pasa den urtarilaren 16an sinatu zuten hitzarmena EMUN kooperatiba elkarte-ko Juan Luis Arexolaleiba eta Agustín Lizaso alkateak eta otsailaren erdi aldera hasiko dira lanean.

Usurbilgo enpresetan euskararen egoera aztertzeko proiektua gauzatzea eta uda-

lari aurkeztea da egitasmo honen helburua. Ondoren, proiektu horren arabera diagnosi lana egingo da. Guzti honek milioi bateko aurrekontua izango du, erdia lana hasierakoan ordainduko zaie eta amaitutakoan beste erdia.

Lan hau EMAN kooperatiba elkarte-ri eman bazaio ere beste bi lehiakide izan ziren lan hau emateko orduan: Artez eta Elhuyar.

Motzean

Eusko Ikaskuntzaren beka deialdia

Udalak, bi erakundeon artean dagoen hitzarmenari jarraituz, ikerlan bat egiteko agindua eman dio Eusko Ikaskuntzari. Hartara, beka bat banatzeko asmoz lehiaketa baterako deia egin da.

Usurbil-i buruz dagoen dokumentazio guztia lortzea izango da helburua. Zuzkidura ekonomikoa 200.000 pezeta gordinekoa izango da eta lana egiteko epea, berriz, 6 astekoa. Lana idatziz aurkeztu beharko da, grafikoekin batera eta disketea erantsiz. Hori bai, zuzkidura ekonomikoa bi entergatan egingo da, %50a lanaren hasieran eta gainontzekoa amaieran. Bekaduna nor izango den erabakitzeko Eusko Ikaskuntzak eta udalak hautagaien artean erabakiko epahaimaia osatuko dute.

Horretarako, ordea, baldintza batzuk bete beharko dira:

- Bekadungaiak historian lizentziatuak izan behar dute edota egin beharreko lanaren arloan esperientzia dutela frogatu beharko dute.

- Ikerkuntzan arituak eta ibiliak beharko dira izan.

- Eusko Ikaskuntzako kide izatea edo bestela lana hasterak egitea. Usurbilen edo inguruko herrietan errolatutakoek lehen-tasuna izango dute.

Hautagaiak eskaera, lan plana eta curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute proiektuari erantsita eta hortarako prestatuta dauden inprimakiak Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan har daitezke.

Dokumentazio guztia Eusko Ikaskuntzaren bulego nagusietan aurkeztu beharko da urtarri-

Herriko ordezkarien 2001. urte



Eusko Alkartasuna

Udal batzarrera aurkeztu den aurrekontu proposamena, Eusko Alkartasunaren ustetan, udalean azken hilabetetan bizi ditugun zalantzen islada da.

Aurrekontu honetan oraindik eztabaidagai eta zertan geratuko diren ez dakizkigun proiektuak planteatzen dira: Kultur arlokoak, haurtzaindegia, Eguneko Zentroa, Zubietarako inbertsioak; eta beste batzuk, nahiz ez agertu, aurrekontu honen gauzatzea baldintzatu dezaketenak: Kirol ekipamenduak (Aginagako frontoia), sagardoaren etxea, agroaldeak...

Idea eta asmoen dispersio bat dago eta EA eta EH artean hitzartutako "Udal akordio programa" ez da izaten ari udal erabakien

eta lehentasunen oinarri.

Aurrekontu honetan udal brigadak hainbat eraikuntza lan egin behar dituela aurreratzen da. Udal brigadaren funtzioak mantentzen lanetara bideratu behar dira, eta ez eraikuntza lanetara. Oso langile trebeak ditugu, baino 32 orduko lan saioa eta errelebo bakarra duten batzuk, ezin dituzte berez epe laburrean bukatu behar diren lanak egin. Lanak luzaroan mantentzen dira, herritarrei eragozpenak sortuz eta beste lanak atzeratuz.

Zerbitzu sozialei dagokienez, aurrekontuak, herriak dituen premiei ez die erantzuten. Gustatuko litzazuke EH-k beste gaietan erakusten duen ausardia eta determinazioa erakutsiko balu arlo honetan ere. Aztergai dagoen Eguneko Zentroaren proposame-

na Europar Batasuneko irizpideetatik urrun dagoela deritzogu, hau da, martxan jarri aurretik txikia geratuko zaigula. Eguneko zentro definitiboak izango dena eztabaidatu nahi dugu, ez unean uneko, koiunturalki, diren beharrei erantzuneko dien partxeo bat.

Era berean udaleko zerbitzu sozialek duten probisonaltasuna gaintitu behar da. Ditugun zerbitzuak eta langileak ez dute Foru Aldunditik etortzen zaizkigun dirulaguntza batzuen arabera baldintzatutako egon behar. Ezker-tiarzat bere burua duen gobernu batek zerbitzu horiek kontsolidatu behar ditu, ditugun gizarte laguntzaileak lan-saio osoa izateko adina behar eta premia badago herrian.

Zalantza eta definizio falta honek, aurrekontu honengan gure konfidantza ez jartzea ekarri

EH

Euskal Herriarrok

Euskal Herriarrok

Onartu ditugu dagoeneko 2001eko aurrekontuak, garaiz eta ondo onartu ditugu gainera. Normala den bezala aurrekontuen proposamena EHtik jaio zen baina beste taldeek ere izan dute ekarpenak egiteko aukera. Aukera baka-rrik ez, ekarpenak egin dituzten kasuetan gehienak onartu eta aurrekontuan txertatu baitira. Lastima da, hala ere, betiko aitzakia kaxkarren ondorioz EA eta EAJren aldeko botorik jaso ez izana.

Usurbilgo udalaren 2001eko aurrekontua ederra da, 1.359 milioi pezetara iristen baita, inoiz izan duen haundiena. Zenbaki potolo hori ulertzeko herriar bakoitzaren zerbitzura udalak 256.201 pezeta erabiliko dituela esan dezakegu. Bada zerbait.

Sarrerak begiratzuz, hauen arteko oreka azpimarratu behar dugu:

- 547 milioi pezeta jasoko dira udal zerga eta berezko sarreraren iturritik (%40a).
- 365 milioi pezeta beste instituzio- en transferentzi arruntek osatuko dituzte (%27a).
- 447 milioi pezeta inbertsioetarako enpresen transferentziak izango dira (%33a).

Gastuak ere haundiak dira:

- Aurrekontu osoaren erdia, inbertsioetan erabiliko da (690 milioi). Inoiz egin duen ahailekin haundiena egingo du aurre Usurbilek: 130.000 pezeta usurbildar bakoitzeko.
- Langilego propioak ziurtasuna eta sendotasuna ematen du. Gastuen zati dexentea jan ere bai, 333 milioi pezeta.
- Beste gastu arruntan eragina ez da oso handia. Erosketa arruntak 148 milioi pezetakoak izango dira (%11a). Zorraren gastuak, berriz, interes eta amortizazioak, 89 milioi (%7a) eta transferentzietan beste 100 milioi gastatuko dira (%7a).

Nazio eraikuntzaren aurrekontuak dira hauek. Eraikuntza herrian hasten delako 690 milioi izendatu ditugu herrian inbertsioak egiteko. Baina nazio eraikuntza ez da herrian bukatzen eta horregatik gero eta gehiago inbertitutako dugu Euskal Herrian, Iparraldean eta Nafarroan batez ere. Irizpide hauek jarraituz, hona hemen bultzatuko ditugu inbertsioetako batzuk: Atalluko enpresentzat lurrak, beraien diruz ordaintzeko 370 milioi, Paris atzeko parkea (110 milioi), Zubietako inbertsioak (30 milioi), Usurbilgo zaharrentzat eguneko zentro berria (10 milioi), trafikoko antolaketa berria (11 milioi), kirol inbertsioak kiroldegian (10 milioi), haurtzaindegia berria eraikitzeko 8 milioi, nazio eraikuntzarako (9 milioi).

Ikusten den bezala nazio eraikuntza bultzatu nahi dugu alde guztietatik, Usurbildik hasi eta Euskal Herri osoan zehar. Eta hau guztia kanpo-ko zorra haunditu gabe egiten ari gara. Bide onetik goaz.

irizten?

ko aurrekontuaren balorazioa


Eusko Alderdi Jeltzalea

EAJ-PNV alderdiaren aurrekontuekiko ezetza honetan datza:

1. Pertsonala:

EHk, epe bateko lanari aurre egiteko kontrataturiko langileak funtzionariatuko ditu datorren urtean ere aurrekontuetan ageri den moduan. Hala nola, Diputazioaren dirulaguntzapean sortutako lanpostu bat, Foru Aldundiak dirulaguntza hori kendu eta gero, oposaketara ateratzea erabaki du, soldataren %100a bere gain hartuaz. Guzti hau benetan gaizki planteatu dutela iruditzen zaigu, izan ere, urtetik urtera lanpostu honen betebeharrak beherantz doaz, geroz eta behar gutxiago baitago. Honek ez du esan nahi oraindik beharrik ez dagoenik, baina bailarako zerbitzu bat izanik, Usurbilgo udalerako langile honen soldata

osoa hartzea karga ekonomiko haundiegia dela deritzogu.

Langilegoa kontratatzeko unean, beharrak aztertzeke erarekin ez gaude ados. Batzuetan beharra berehala ikusi (guk ez) eta lanpostua sortzen dute. honen adierazgarri da Usurbilek bere biztanlego kopuru antzekoa duten udalekin alderatuz duen langile kopurua. Hala ere, besteetan benetako beharrak sortzen dira eta hauei aurre egiteko ekonomia onartzea zama haundiegia litzatekeela argudiatuz ez dira beharrari aurre egiteko prest azaltzen. Azken honen adierazgarri da oposaketara atera nahi duten Kultura-Euskara-gaztedia teknikariaren postua. Nahiz eta oposizioak eta baita kultura, euskara eta gaztedia mailan mugitzen diren pertsonen ere gutxienez bi lanpostu (bata kultura teknikaria eta bestea euskara teknikaria) beharrezko direla ikusi, EHk ez du amore eman nahi. Honez gain, lehen aipaturiko Hastapen

Tailerretako lanposturako horretan jardun duen pertsonaren lana puntaketarako baloratzen da, aldiz, Euskara Teknikari lanak egin dituen pertsonaren lana ez da baloratu nahi. Horregatik, azken aldian ateratzen diren lanpostuetarako oinarriekin kanpokoak direnei udalera sartzea erraztu nahi zaiela iruditzen zaigu, herrikoen kalterako noski.

2- Atallu industrialdea:

EHk, hasieratik, Atallu industrialdearen planteamendua oker enfokatu duela iruditzen zaigu. Duela gutxi, gainera, Atalluko lur jabeei lehen "justiprezioan" ematen zitzairen diru kopurua baino gutxiago eskaini zaie beren lurrengatik. Beste aldetik, segurtasuna eta eragin ekologikoari buruzko azterketen gure eskaerei ez diete jaramonik egin. Espero dezagun hain arinki hartutako erabaki hauek ez dietela inolako ondorio kaltegarrikerik eragingo erribera inguruko biztanleei (Santutenea).

2000ko gastu aurrekontuaren laburpena	Langile gastuak	Ondasun arruntzen erosketak	Finantz gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Diru transferentziak	Finantz pasiboak	Guztira
Zerbitzu oroko.		25.390.478		12.450.000	3.000.000	30.000.000		70.840.478
Gizarte ekintza		8.171.214		17.888.753	15.040.000	5.000.000		46.099.967
Enplegua gar.		4.377.261			10.000.000			14.377.261
Hezkuntza		9.813.988		3.877.720	11.000.000			24.691.708
Kultura		7.675.000		15.100.000	18.923.730			41.698.730
Gaztedia		2.500.000		900.000	5.000.000			8.400.000
Kirola				40.107.880	1.754.000	10.000.000		51.861.880
Hazienda Udaltzaingoa		4.030.385	20.673.689		500.000		68.840.668	51.468.972
Hastapen tailerra		4.968.229						4.968.229
Enplegua-garapen		4.377.261			10.000.000			14.377.261
Hirigintza		8.380.000		46.485	526.012.744			534.439.229
Nekazaritza ingur.		950.000		576.523	11.660.000	721.000		16.797.518
Langilegoa	332.679.908							332.679.908
Euskara		6.275.757		3.371.761	7.150.000			16.797.518
Guztira	332.679.908	148.174.145	20.673.689	99.798.152	643.258.459	45.721.000	68.840.668	1.359.146.021
Bakoitzaren %	% 24,50	% 10,90	% 1,55	% 7,34	% 47,34	% 3,30	% 5,07	16.797.518



Mihixe Pintura Eskolako antolatuta, urtarrilaren 21etik Agate Rekondoren pinturak Udarregiko kulturgunean ikusgai daude datorren urtarrilaren 28a bitartean. urteaz geroztik egindako 57 koadrok osatzen dute erakusketa hau, baina 100 koadro baino gehiago margotu dituela aitortu digu. Guk zerbaite gehiago ere jakin nahi izan dugu.

Noiz eta nola sartu zinen pintura mundu honetan?

15-16 urte nituela Zumaiako Maria y Jose ikastetxean hasi nintzen nire lantxoak egiten. Nire amak zenbait margolan eginak zituen eta beti gustatu izan zait margotzea. Garai hartan marrazkiak egiten nituen eta berehala pintatzen hasten nintzen.

-16 urte nituela hasi nintzen lehen pintura lanak egiten"

Gero, ordea, denbora dexente egon zinen margolanik egin gabe ezta?

Guk garai zailak bizi izan ditugu, gerra zibila etab. eta urte haietan beste kezka batzuk genituen buruan. 1993. urtean hasi nintzen berriz koadroak egiten. Mihixe Pintura Eskolako Amaia Kasasola etortzen zen Aginagako zahar egoitzara pintura klaseak ematera eta aginagar batek bere postua hartzea nahi al nuen galdetu zidan eta ni gustora sartu nintzen pintura tailerrean. Oraindik jubilatuta gabe nengoen baina margotzea gustatzen zitzaidanez bertan hasi nintzen, eta bertan jarraitzen dut oraindik.

Denbora asko eskaintzen al diozu pinturari?

Astean lau ordu bi egunetan banatuta. Amaia Kasasola etortzen zaigu oraindik eta berak erakusten digu egin beharrekoa.

Zer estilotako pintura lantzen duzu?

Kaballetea hartu eta kanpora ez naiz joaten adinean aurrera joan da bainago. Lamina bat hartu, hura marraztu eta gero margotzea

gustatzen zait. Ikatz-ziriarekin mihisean marrazten dut lehen-dabizi eta gero pintzelarekin margotzen dut. Espatularekin paisajea margotzea dut gustokoen eta modu honetara egindako koadro ugari ditut.

Zenbat pintura lan dituzu eta zer egiten duzu beraiekin?

Erakusketan 58 koadro jarri badituzte ere guztira 100 lan baino gehiago ditut. Etxean dozena erdi bat edukiko ditut eta beste guztiak seme-alaben artean banatuta.

Jende asko al zabilzate Arrate zahar egoitzak antolatutako pintura tailerrean?


Zortzi edo bederatzi biltzen gara, guztiok aginagarrik. Nik uste dut kopuru hori erakustaila batentzat nahikoa dela. Sei jubilatuta daude eta beste hiru jubilatuta gabe.

Erakusketa hilak 21ean ireki zenuten, zer moduzko harrera izan du?

Ni ireki zen egun berean egon nintzen eta eguerdian nahiz arratsaldean jende dexente ibili zen. Bakarka egiten dudana lehen erakusketa da hau eta uste dut oso ondo jarri duela Amaiak.



Sasi guztien artetik basurdea handik eta hemendik



Zerriaren ahaidea eta ziurrenik bere arbasoa dugu ugaztun hau. Loturetatik libre, sastraka ugari dagoen basoetan ibiltzea du gustoko. Luzea du muturra, haundiak letaginak eta azken urteotako mendien utzikeria dela bide basurdea ugaritzen ari da Euskal Herri osoan. Baita Usurbilen ere. Duela hilabete inguru hiru basurde trenbidean hilda agertu ziren Santuenea aldean. Abenduaren 30ean, berriz, ehiztari talde batek 80 kilo inguruko basurdea hil zuen Urkamendi baserriaren inguruan. Zerbaitegatik egongo da animalia hau herriko armarrarian ezta?

Asterix eta Obelixen komikietan behin baino gehiagotan agertzen da animalia hau. Obelixen jaki kuttunena izanda erraztasun osoz harrapatzen ditu Galia inguruko basoetan. Tirorik egin gabe basurde harrapaketa itzelak egiten ditu umetan edabe magikoa edan zuen gizon lodikoteak. Euskal Herriko basurdeak, ordea, kontu haundiagoz ibiltzen dira bertako basoetan. Azken urteetan, ixil-ixilik, txoko guztietan ugarituz joan da basurdearen populazioa. Zaila da Euskal Herrian zenbat basurde dauken kalkulatzeko. Iaz 7500dik gora hil zituzten Euskal herrian eta Biarnon ehiztariak. Hortaz, 20.000tik gora izan daitezke Euskal Herrian bizi diren basazerriak.

Duela hamar urte oso murrizta zen lekuetan ere ugaritzen ari da basurdea. Horren adibidea da Gipuzkoan eta Bizkaian izan duen hazkundea. Iñigo Mendiola teknikariak esan digunez, gure herrialdean 1000-1200 basurde inguru daudela uste dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailean. *"Haiek eragindako kalteen inguruko kexuak jasotzen ari gara aspaldi basurderik ageri ez zen guneetatik ere"*.

Sasi artean gustora ibiltzen dira basurdeak eta azken urteotan mendien utzikeriagatik sortu diren sastraka ugariak basurdeen ugaritzea ekarri du. Sasi artean hazten dituzten kumeak eta ehiztariengandik ihes egiteko orduan ere inork

baino hobeto erabiltzen ditu gure mendietan dauden sasi-te guztiak. Animalia belarjale honek, ordea, jan beharra du eta basoak fruiturik ematen ez duenean baserritarrek haiek eragindako kalteekin egiten dute topo. ENHE sindikatuko Olate Arrarte teknikariaren ustez Gipuzkoako baso landaketek duten dibertsifikazio urria da horren errudun. *"Baso landaketa hauek duten dibertsifikazio txikiak zuzenean eragiten du gure animalietan eta landaretan. Hori da basurdearen kasua. Baserritarrei gero eta kalte gehiago sortzen ari den animalia honek badu non babestu eta ezkutatu, baina baso landaketa hauek ez diete bazkarik eskaintzen".*


Andatza aldean basurde populazioa finkatzeko ahaleginetan basurde batzuk jarri dituzte itxitura batean

Andatza inguruan betidanik egon da basurdea, baina azken urteetan, ordea, desgertzeko arriskuan egon da Iñigo Mendiola Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko teknikariaren esanetan. *"Azken urteetan basurdea zabaltzen, ugaritzen ari da Euskal Herri osoan,*

baina badirudi Gipuzkoan toki batzuetara iristea kostatzen ari zaiola. Hori da Andatzaren kasua. Horregatik bertan populazio bat finkatzeko lan batzuk egiten ari gara".

Duela bi urte inguruko ehiztari-ekin ekimenez Andatza bi hektareako azalera zuen lurzati hartu eta 600 metroko itxiturarekin guztia ixtea erabaki eta bertan basurde batzuk sartu zituzten. Itxitura honen bitartez basurdea ugaritu egin da Zapiain guardak esandakoa- ren arabera. *"Hor dauden basurdeei janaria ematen zaienez inguruko basurdeak ere usainera gerturatzen dira".* Izan ere, Aia aldean basurde ugari dago. *"Pagoetan aterpe bat dago eta basurdeak ton- toak ez direnez Pagoetako parke naturalera inguratu eta han hazi eta ugaritzen dira".*

Itxitura hau dagoenez Andatza aldean ezin da basurderik ehizatu. Horretarako Foru Aldundiaren baimena behar



da eta itxitura jarri zutenean ehiztari-ekin adostuta Andatza aldean basurdeak ehizatze-ko baimenik ez ematea erabaki zuten. Hori bai, Andatza aldean basurdea ugaltu dela ikusten dutenean ehiza baimen- tze-ko asmoa dute. Zapiain guardak esan digunez orain arte basurde umaldi bakarra izan da itxitura horretan, aurre-ko urtekoa, eta sei basurde askatu zituzten, bi har eta lau eme. Aurten, sei edo zazpi basurdeko umaldia badagoe- naren susmoa dute.

Usurbildarrak basurdeak harrapatu nahian

Basurdeak ehizatzen jende asko ibiltzen da azken urtee- tan. Aian bi kuadrila daude, Hernani-Andoainen beste bat... Aiako koadriletako bate- an ibiltzen den Iñaki Portularru- me usurbildarrak adierazi digu- nez ehiza denboraldi osoan ibiltzen dira beraiek basurdeen uxaldiak egiten. *"Basurdeak ehizatze-ko baimenak zonalde- ka ematen ditu Foru Aldun- diak eta ehiztari koadrila bakoitzak muga batzuk ditu. Guri Aia eta Usurbil ingurua dagokigu, baina Andatza aldean ez gara ibiltzen. Basur-*



deak ugaltu nahian itxitura bat jarri zuten Usurbil eta Aia arteko mugatik Zubieta mendi ingururaino ezin dugu basurderik ehizatu. Hala ere, jai eguna dugun bakoitzean txakurak hartu eta Aia aldean ibiltzen gara”.

Duela hiru urte 22 basurde inguru hil zituzten, iaz, berriz, zorte edo punteria hobea izan zuten 35 basurde etxeratu baitzituzten. Azkena abenduaren 30ean hil zuten Urkamendi baserriaren ondoko lurretan. Azken asteetan basurde hori harrapatu nahian ibili ondoren egun horretan zorte pixkat ere izan zutela aitortu zigun Iñakik. *“Pare bat astetan inguru horretan ibiliak ginen eta egun horretakoa egoskorkeria izan zen. Haruntz joan behar dugu errepikatzen genuen behin eta berriz eta euri dextente egin zuenez zakurrek basurdearen arrastoa aurkitu zuten”.* Sei ehiztari ziren, Iñaki eta Xeberio Portularrume bere osaba ere bai, eta zakurrak, berriz, lau. *“Hauek aurrera jarraitzen zuten ia basurdea zapaltzeraino iritsi ginen. Handik 100 metro ingurura hil genuen 60-70 kiloko basurdea”.* Hala ere, aurten aurreko urteko marka gaintzeko asmoa dutela agertu zigun usurbildarrak.

Aia inguruan basurde ugari daudela garbi dute, baina batzuetan Andatza ingurutik pasa, Oria ibaia zeharkatu eta lgeldo aldera joaten omen dira. *“Duela hiru urte ama eta bi kume pasa ziren. Kumeak kozkortu zirenean horietako bat botatzea lortu genuen. Iaz, berriz, basurde haundi bat ibili zen hemen inguruan. Hamabost egunetik behin azaltzen zen eta azkenean Aia eta Usurbilek muga egiten duen lekuan, Irisasin hil zuten beste koadrila batekoek 96 kiloko basurde hori”.*

Josu Aranberri

Duela 55 urte ehizatutako basurde hura...

Garai batean basurde gutxi ibiltzen zen Andatzan. Mendi garbia zen, sasi gutxikoa, eta basurderik ia ez zen sartzen inguru hauetan. Orduan ere ehiztariak baziren, asko gainera, eta erbiak eta oilagorak ehizatzaera joaten ziren. Halako batean, ordea, duela 55 urte inguru, Andatza basurde baten arrastoak aurkitu zituela esanaz abisua pasa zien herriko ehiztariei Puelako Santi artzaia.

Herriko ehiztari gehienak bildu eta basurde haren bila joan ziren Andatzara. Ez zuten basurde txakurrik, erbi zakurrak izanda basurderik ikusi eta usaitu gabeak baitziren. Horregatik, Leitzako ehiztari batzuekin tratua egin zuten hauek basurde txakurrak ekarriaz. 30-40 ehiztari-ko koadrila zen eta tartean ziren Bixente Altuna, Joxe Antonio Altuna alkatearen aita, Naxario Aizpuru bere aita eta garai hartan 18 urte zituen Ugarteko Ramon Echeverria-Berreartza.

Andatza arrasto berririk aurkitu ezinik ibili ondoren eguerdi aldera jendea nazkatzen hasi eta batzuk herrira jeistea erabaki zuten. Beste batzuk, ordea, basurdearen bila jarraitu zuten eta Ziortzako langa pasa ondorengo lurretan arrasto berri bat

aurkitu zuten. Basurdea ahal zuten moduan inguratu eta halako batean han azaltzen da basurdea. Joxe Antonio Altunak entzuna duenez bere aitak eta Ugarteko Ramonek ikusi zuten basurdea bere gordelekutik ateratzen. *“Nire aita zegoen lekutik distantzia batera Ramon omen zegoen. Nire aitak basurdearen muturra ikustearekin batera, Ramonek tiro bat bota omen zion, honek hobeto ikusi omen zuen eta”.*

Basurdea bertan erori zen, baina Ramon ez zen mugitzen. Horregatik Bixente basurdea zegoen tokira joan eta azkenetan zegoela ikusita bere horretan utzi zuen. Ramonek susto galanta eramane zuen. Basurde bat ikusten zuen lehenengo aldia izango zen ziurren, baina horrez gain lehen tiroa botatzen saiatu zenean eskopetatik ez zen tirorik atera. Hori bai, bigarrenaren ez zuen huts egin.

Basurdea hartu eta ilunabarrean jeitsi ziren herri aldera. Sanesteban aldera iristearekin batera tiro hotsez iragarri zuten basurdea zekartela. Herri guztian azkar zabalduta zen basurdearekin zetoztela eta herriar gutxi gelditu zen basurde hura ikusi gabe.



Hona hemen basurdea harrapatu ondoren Zendoia-enea atzeko terrazan ateratako argazkia. Bixente Altuna, Felix Urkia eta zubietarra dira goian ezkerretik eskuinera daudenak. Behean, berriz, Ramon Echeverria, Furundarena eta Joxe Antonio Altuna (umea).

Gertakizunez betetako gaua

Pasa den urtarrilaren 13koa ez zen gau lasaia izan. Birziklatzeko ontziak su hartu zuen, Oiardo Kiroldegi aurreko aparkalekuan kotxea lapurtu zuten eta Etxebeste kalean dagoen egunkariak saltzeko kioskoko kristal bat hautsi zuten.

Kontzeju-zarra kalean dauden ontzietako batek su hartu zuen gaueko 22.30ak aldera. Norbaitek kortxo, zigarro erre eta txanpain kortxoez betetako kaxa batzuk utziak zituen plastikoak birziklatzeko ontziaren alboan eta, nola ez bada, kigu ere su hartu zuten kaxa hauek. Horren ondorioz, birziklatzeko ontzi batek su hartu zuen eta hau berehala amatatzea lortu bazuten ere, ontzi horren zati bat belztuta gelditu zen.

Kotxe lapurreta ere izan zen gau horretan. Oiardo kiroldegi




aurreko aparkalekuan zegoen Opel Kadett bat lapurtu zuten goizaldera. Handik egun gutxira Oiartzun eta Lesaka bitarteko bide ondoko amildegi batean aurkitu zuten. Hori bai, ibilgailuak jasan dituen kalteak haundiak izan dira.

Azkenik, Etxebeste kalean dagoen egunkariak saltzeko kioskoaren kristal bat hautsi

zuten ezezagun batzuek goizeko 3.00ak aldera. Kristala hautsi ondoren entzundako ahotsen arabera, bi gazte izan ziren hau hautsi zutenak. Baina oraindik ez dakite nortzuk izan diren. Hala ere, kioskoaren ondoan odol arrastoak aurkitu zituzten eta, dirudienez, ebakiren bat egin zuen egileak kristala apurtzerakoan.

Elkarteen arteko III. Mus Txapelketa

Datorren larunbatean, urtarrilaren 27an, herriko Elkarteen arteko III. Mus Txapelketaren finala jokatu da Mahaspildegia elkartean. Bertan izango dira Mahaspildegia elkartea, Aginagako elkartea, Aitzaga elkartea, Eguzki elkartea, Andatzpe elkartea, Ibai Ondo elkartea, Peña Pagola elkartea, Yoko Garbi elkartea eta Erroizpe elkartea ordezkatzeko dituzten bikoteak. Izan ere, bakoitzean bazkideen artean jokatuak kanporaketaren ondoren, elkarrekin bakoitzak bi bikote izendatu ditu arratsaldeko 16.00etan hasiko den finalerako. Sari banaketaren ondoren Mahaspildegian bertan egingo den afariarekin emango zaio amaiera 2001. urteko txapelketari.



**RAMON
BARCENILLA**

.Pikor-pinturaeta
gotele lanak
.Papereztatze-lanak
.Pintura-lanak or har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888 021

**XABIER
EDARITEGIA**


**Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak**

✕ Idiazabal gazta
✕ Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

Odol emanaldia urtarrilaren 15ean

Urtarrilaren 15ean izan zen aurtengo lehen odol emanaldia Usurbilen. Guztira 50 pertsonak eman zuten odola anbulategian. Ahalik eta ziurtasun haundiagoa eman nahian, tresneria berria ekarri zuten, gero eta azterketa gehiago egiten baitzaizkio herritarrek emandako odolari. Odola emateko unean odolaren kalitatea neurtzen da eta emailearen egoera ere bai, hori guztia guztion osasunaren onerako. Hurrengo emanaldia martxoaren 5ean izango da.



Andoni Sagarna usurbildarrak Arrasate Euskaldundu Dezagun (AED) elkarteak antolatzen duen Jokin Zaitegi itzulpen sariketa irabazi zuen abenduan. Zazpi lan aurkeztu ziren eta Andoniren eta Xabier Yurramendi donostiarraren lanak parekoak zirela ikusita biak irabazle izendatzea erabaki zuen. *Noaua!* Kultur Elkarte-ko lehendakariak italieratik egindako "Ura" izeneko itzulpenagatik 150.000 pezeta eta trofeoa jaso zituen.

JosAnton Artzeren "Txoriak txori"

Euskal Kultur Erakundeak (EKE) "Kantuketan" erakusketa ibiltaria antolatatu du euskal kantua omentzeko asmoz. Egitasmo honen barruan, JosAnton Artze usurbildarren "Txoriak txori" kantua inguruan web orrialde bat egingo da. Bertan, hain ospe handia lortu duen kantua sakonki aztertuko litzateke, edukaren aldetik eta lehenengo eta oraingo kantatzeko moldeen aldetik. Erakusketa ibiltaria otsailaren 3tik martxoaren 10a bitartean zabalik egongo da Baionan.



Aginagako lurjabeen komunitateak lur batzuk eskaini dizkio udalari. Lehenengo eskaintza komunitateko kide direnei egin die eta batek lurzati bat hartu du. Beste guztia, berriz, udalari saltzeko prest agertu da Aginagako komunitatea. Udala lur horiek interesgarriak diren ala ez aztertzen ari da momentu honetan. Aitzmurgilen, Erroizpeko presatik gora, Intxauspeko erreka inguruan, Aginagako elizaren atzean... daude lur horiek.



Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Nikarguara joanak izango dira dagoeneko. "Honek" izeneko Gobernu Kanpoko Erakundearekin harremanetan jarri eta pailazoez hain zenbait emanaldi egingo dituzte, euskara eta gaztelania nahastuta, hango umeek uler dezaten. Hauekin batera joan da haruntz Hik Hasi aldizkariako Ainhoa Azpiroz usurbildarra, hango hezkuntza sistema ezagutu eta gero horren berri aldizkarian emateko asmoa baitute.

SERIGRAFIA
T A n P O G R A F I A

105U

Ugaldea poligonoa 36 - 2° - Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI E Ta
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

Zendoia enea
taberna

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, ...

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

JUANTXO
burdindegia
kalenagusia! Usurbil
370008

Udarregi ikastolako ikasleak ere danborra jotzen badakite

Udarregi ikastolako ikasleak danborrekin kalera irten ziren Donostiara danbor hotsak iritsi baino lehen. Izan ere, aspaldiko urteetako ohiturari jarraituz urtarilaren 19an, San Sebastian bezperan, 20 minutu inguruko

erakustaldia egin zuten euriaren mehatxupean. Haur hezkuntzakoek Agerialdeko frontoi estalieta batean bildu eta Arantxa Iribar gidari zutela danborra astintzen trebeak direla erakutsi zuten han bildu ziren senitartekoen goza-

menerako. Lehen eta Bigarren hezkuntzakoak, berriz, Udarregi aurreko plaza borobilean egin zuten beren erakustaldia. Aitor Pagolaren aginduetara San Sebastian eguna gainean genuela argi eta garbi utzi zuten danborrari gazteek.



“Irati” irratiaaren aldeko eguna

Aitzaga Kultur Elkartetik gonbite polit bat egin nahi dizuegu usurbilen euskara maite duzuen guztioi.

Badakizue gure helburuetako bat euskara eta Euskal herriko bazter guztietako euskaltzaleen arteko harremanak indartzea dela. Bide honetan, Zuberoako Urdaibarko herriko jendearekin azken urteotan lortu dugun harreman estua duzue adibide garbia.

Oraingoan Nafarroara iritsi nahi genuke Usurbildik harremanak estutzeko ahaleginean. Nafarroako Aezkoa bailaran (Garralda, Arike, Orbaizeta, Abaurrea...) euskararen egoera hobetu beharrean gainbeheran doa. Eta ez euskara bakarrik, hango herrien biztanle kopurua eta bizi ekonomikoa ere hiltorian daude.

Giro ezkor horren barruan, hango biztanleen egunak alaitu eta euskara bultzatzen



Soñutako Eperra ikastolaren aldeko kanpaina egin zuen Aitzaga elkarteak 1997.urtean. Orduan 900.000 pezeta lortu ziren.

dituen eta Aezkoako herritarren komunikabide garrantzitsua den “irati” irratia bizirik mantentzen saiatu nahi dugu.

“Irati” irratiaaren aldeko eguna antolatzen hasiak gara dagoeneko. Egun horretan Orbaizetako pelotari gaztetxo batzuk izango dira Usurbilgo frontoian, musikariak ere ibiliko dira kalez-kale eta bazkari eder bat ere egingo dugu Aezkoako jendearekin.

Aezkoako “Irati” irratiaaren aldeko egun hau otsailaren 11n ospatuko dugu, eta seguru gaude usurbildarrok gogoz parte hartuko dugula bertan.

Giroa berotzen hasteko, ordea, ltoitz-ko urtegiaren inguruko hitzaldia izango da Aitzagako aretoan otsailaren 8an arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

Aitzaga elkarteak

Parrokiko dorrearen berritzea dela eta...

Salbatore parrokiako dorrea erabat itxuraldatu zaigunik ezin uka. Goitik behera eraberritu ondoren zeharo txukunduta dago orain eta garbitasun hori indartzen duten argiek ere itxura ezin hobea ematen diote 45 metro inguruko dorre luzeari.

Dorrearen eraberritzea ospatzeko bi ekitaldi antolatu ditu

parrokiak. Otsailaren 8an, ostegunean, “Parrokia eta dorrearen arte balioa” diapositiba emanldia izango da parrokan arratsaldeko 19.30etan Edorta kortadiren eskutik.

Otsailaren 10erako, berriz, egitarau mardulagoa osatu dute. Arratsaldeko 19.30etatik aurrera dorre aurrean dema

plazan bildu eta ekitaldi xume bat egingo da. Zenbait kanpai errepika jo, dorrearen zehaztasun batzuk eman, argiak piztu, bertso batzuk bota, eskertza egin eta Irrii abesbatzak “Usurbilgo Elizaren hormak” abestia kanatatuko du. guzti honen ondoren Eukaristia izango da Salbatore parrokan arratsaldeko 20.00etan.



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n tu k

Ir zu k l , 3 T l . 3 37 13



Urteinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Inaxio Telleria: "Nire zaletasun eta bizio bakarra idiak dira"

Inaxio Telleria Lasarten jaioa bada ere, badira 15 urte Usurbilen bizi dene-tik. Bere bizitza guztia idi eta uztarri artean eman du eta, oraindik orain, Gipuzkoa zein Bizkaiko plaza guztiak eza-gunak ditu oso. Inaxioren afizio honetan zeresan handia izan du bere aita zenak, Antonio Telleriak. Izan ere, Inaxiok bere lehenengo pausak idiz beteriko ikuilu batean eman baitzituen.

Idiekin ez omen da dirurik irabazten. Zer da mundu honetara bultzatzen zaituena?

Afizioa, dudarik gabe. Beste batzuek ehiza egiten dute edo igandero futbola ikustera joaten dira. Nire zaletasun bakarra idiak dira.

Lehen eta orain idiak ezberdin prestatzen al ziren demarako?

Lehen entrenamendu gutxi egiten zen, idiak etxeko lanak eginez prestatzen ziren plaza-rako, belarretan, goldearekin... Gaur egun, berriz, entrena-mendu gehiago egiten da idiak espreski kirolerako prestatzeko. Etxeko lanetarako gutxiago erabiltzen dira idiak, traktorea baitago.

Eta zer da hobea?

Hobea da txikitatik hasi eta idia etxeko lanak egiten hezitzea. Gaur egun idia gaztetxo



dela hasten gara entrena-menduetan, agian zaharregi direnean.

"Atzetik badatoz idizale gazteak, asko ez badira ere. Pixka batean, behintzat, jarraituko du demak"

Zein adinetan has daiteke idi bat plazan?

6 urtetik gora has daiteke. Hala ere, 8 eta 12 urte bitarteko adina da onena. Hortik gora, berriz, idia zaharra da demarako.

Nola entrenatzen dituzue idiak?

Baserrian estalitako pista bat dugu apropos idiak entrena-tzeko eguraldi txarra denean. Pisuarekin jarritako pneumatiko

batzuei tiraka ere ibiltzen ditugu. Goldean eta ibiltzen ditugu, baina ez asko.

Belaunaldiz belaunaldi pasa diren ohiturak eta maniak ere izango dituzue.

Bai, gure aita zenak oilo salda, ardoa, bitaminak, azukrea, koñaka, kafea... gauza asko ematen zien idiei. Egun, ordea, antidoping-ak daude eta ezin diegu ezer eman. Idiak demara joan aurretik pisuan sartzeko dieta egin behar izaten dute. Hala, proba egunean kafe pixka bat edo koñaka bizigarri izan daitezke, aberea argitzeko modu bat. Ezin diegu, ordea, ezer eman.

Zein gastu ditu idi pare batek?

Pentsua garesti dago, bitaminak eta medikamentuak ere behar izaten dituzte noiz

**E TX
ITEGI**



Kima
MASAJE LEKUA




INTX E EZI K

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

rtz. 2, 21. 3 37 1 2



batsetan

edo noiz...hala ere dirua baino gehiago idiak hezitzen eman behar duzun denbora da gastu nagusia. Batez ere idi gazteak badira entrenamendu asko behar dute, honek bere nekeak ematen ditu; hori bai, gustuko nekeak.

Urtero idiak ekartzeko bidaiaren bat egiten duzu, ala?


Bai, Galizia aldera joaten naiz. Batzuetan zerbait ekartzekotan eta beste batzuetan, berriz, ikusteko baino ez.

Zertan atzematen duzu idia plazarako egokia den ala ez?

Altuera egokia behar du, baita atleta itxura ere. Dotorea eta estiloa ere garrantzitsuak dira. Bizia izan behar du, narru finekoa... begibistakoak diren ezaugarriak dira lehenik garrantzitsuak, gero, ordea, idi hori hezi egin behar da plazarako.

Idia ona berezkoa da hala hezi egiten da?

Berez idia ona izan daiteke,



baina hori ondo hezi beharra dago. Beste batzuk, berriz, erakutsi arren, ez dira onak plazarako. Futbolean ere asko ibiltzen dira eta gutxi batzuk iristen dira hor gora. Idi deman ere, berdin gertatzen da. Hala ere, berezko abilezia behar du idiak.

Itzai bezala ere aritzen zara. Zer behar du itzai onak?

Gorputza behar du, baina garrantzitsuena bista da. Ganaduaren joera atzeman

eta idi bakoitzarekin nola jokatu jakin behar du itzaiak.

Etorkizunik ba al du idi demak, jarraipenik izango al du?

Atzetik badatoz idizale gazteak, asko ez badira ere. Pixka batean, behintzat, jarraituko du demak.

Dema eta tranpa elkarren ondoan al dato?

Tarteka bai, baina ez beti. Kirol garbirik ez da egun, gainera apustua eta dirua tartean dagoenean, are gutxiago. Baina hori kirol guztietan gertatzen da. Hala ere apustuak jokoa bizitzen du, beste pizgarri bat ematen dio.

Diru asko mugitzen al da dema munduan?

Bai, diru pixka bat izaten da. Baina apustuak arriskua dakar eta diru hori ez da ziurra. Gas-tuak ordaintzeko lain lortuta, ni konforme naiz.

Sustoren bat edo beste

Idi demarako ezezik, egun abere hauek festa askotako protagonista ere izaten dira. Telleriatarrak herri askotan izaten dira kabalgata, erakusketa eta desfileak direla medio. Esaterako, Olentzero paseatuz izaten dira gabonetan urtero Donostian eta Iruñean. San Sebastian egunean ere, Easoko ederraren karroza idi pare batek eramaten du. Festa hauetan izaten den jende andana kontuan hartuta, sustoren bat edo beste ere izan dute urte hauetan guztietan. Esaterako, garai batean Santo Tomas egunez idi probak izaten ziren Donostian. Behin saioa amaituta, idiak hesi batera lotuak zeudela, norbait gerturatu eta idi haue-tako baten soka askatu zuen. Abereak alde egin eta hiriburuko Alde Zaharra zeharkatu zuen, zauritaren bat edo beste eraginez.

Amagoia Mujika

ARRAINDEGIA
PELLO
Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL

Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

txar o ar tze
ILEAPAINDEGIA

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

zerdi patsetan



Eskubaloia

2. Nazional mailako taldeak denboraldiko hirugarren garaipena eskuratu zuen azken jardunaldian. Azken postuan zegoen Urola taldeari sekulako errepasoa eman eta 29-13ko garaipena eskuratu zuten Oiardo kiroldegian. Iazko taldearekin alderatuz baina ugari izan ditu talde honek eta jokalarien adinaren batzbestekoa nabarmen jeitsi da. 15 partidu jokatu ostean, azken bigarren postuan daude aurreko taldeak dituen puntu berdinekin.



Futbola

Aginaga Sagardotegiak ligako azken fasea jokatzeko txartela eskuratu du Kontxa-ko txapelketan. Azken jardunaldian 12-2 irabazi zuten eta 10 talde izanik 4. postuan amaitu dute lehen fasea. Bigarren fasean lehen postuan amaitu beharko dute finala jokatu nahi badute behintzat. Bestalde, usurbil Futbol Taldeko neskek 1-0 galdu zuten Zarautzen Antonianoren aurka eta 8 partidu irabazi eta 7 galdu ondoren 6. postuan daude 15 jardunaldi jokatu ostean.



Judoa

Urtarrilaren 13 eta 14an Espainiako txapelketara sailkatzeko sektoreko borrokaldiak jokatu ziren. Aragoi, Nafarroa, Errioxa eta Euskadiko judokak izan ziren lehian eta Usurbil Judo elkarteak ordezkariak emaitza onak lortu zituzten. Besteak beste, **Andoni Aizpuruak** lehen postua eskuratu zuen -60 Kg. pisuan eta **Josu Arrutik** bigarren postua +100 Kg. etan. Emakumezkoetan, berriz, **Aiora Arrozpide** bigarren gelditu zen -57 Kg. etan.



Eskola kirola

Aurtengo ikasturtean Udarregi ikastolako 172 ikasle (horietatik 80 neska) parte hartzen ari dira Eskola Kirola izeneko egitasmoan. Guztira 26 talde osatu dira kirol ezberdinetan aritzeko: areto futbola, zazpiko futbola, eskubaloia, multikirola, psikomotrizitatea, esku pelota, judo, igeriketa, gimnasia erritmikoa eta euskal dantzak. Ezin ahaztu guzti hau ahalbituz duten erakusleez ere, ikasturte honetan 25 monitorea baitaude (hauetatik 8 neska).

Emaitzak

Futbola neskak

Urtarrilak 13-14

Usurbil F.T **2** - San Ignacio **1**

Urtarrilak 20-21

Antoniano **1** - Usurbil F.T **0**

Eskubaloia

Urtarrilak 13-14

Gascan 97 **22**-Usurbil K.E. **17** (2.N.)

Aloña Mendi **24** - Usurbil K.E. **15** (ju.m)

Del Barrio **14** - Usurbil K.E. **17** (ju.n)

Hondarribia **16** - Usurbil K.E. **16** (k.m)

Urtarrilak 20-21

Usurbil K.E. **29** - Urola **13** (2.N.)

Usurbil K.E. **25** - Xarpot **21** (ju.m)

Usurbil K.E. **12** - Bera Bera **21** (ju.n)

Usurbil K.E. **33** - Arrasate **20** (k.m)

Futbol aretoa

Urtarrilak 13-14

Txotx **4** - Cash Converter **3**

Antxeta - **2** Marisol taberna **5**

Larramendi **14** - Pello Arrain. **2**

Intxurre **4** - Aitzaga **0** (Ju.n)

Urtarrilak 20-21

Tecnun A **5** - Txotx **4**

Soci. El Sauce - **1** Antxeta **2**

Pello Arrain. **1** - Inter C **9**

Hondartzako futbola

Urtarrilak 13-14

Aginaga Sag. **4** - Frudisk **0**

Urtarrilak 20-21

Aginaga Sag. **12** - Setalde **2**



HEIKTEN

esteban kalea, 8
48940, Usurbil

TEL. 33 217



Euskalpresaketeira!



kafe berezia

San Esteban kalea, 8

TLF 36 27 70

20170

USURBIL



Xabier Arregi: *“Bertso mundua eta teknologia berria elkarrekin lotu daitezke”*

Xabier Arregi zubietar informatikariak CAF-Elhuyar Zientzia Dibulgaziorako VII. Sari banaketan lehenengo saria lortu du EHUko Informatika Fakultateko Ixa taldeko Iñaki Alegria eta Bertol Arrieta kideekin batera egindako “Bertsolaritzarako errima aurkitzaile informatiboa” artikuluaekin. Bertan, beraiek sortu duten bilatzaile baten nondik norakoak azaltzen dira, bertsoak egiteko errimak aurkitzen laguntzen duen bilatzailearenak hain zuzen ere. Xabierrek berak eman digu egitasmo horren berri.

Nondik eta nola sortu zitzazuen honelako bilatzaile bat egiteko ideia?

Idea hori ikasle batek ikasketa bukaerako proiektu bat egiteko bota zuen proposamenetik sortu zen. Garai hartan ikaslea zen Bertol Arrieta, eta hark aipatu zidan ideia interesgarria iruditzen zitzaiola bertsogintzan laguntzeko ingurune informatiko bat egitea. Proiektu orokorra zen hura, baina pixkanaka-pixkanaka egin zitekeena zehazten joan ginen eta azkenean errima aurkitzaile bat egitea erabaki genuen.

Zer egiten du bilatzaile horrek?

Programa horrek bukatu emanda bukaera horrekin datozen errima posibleak tzen ditu. Atzekoz aurrerategia erabiliz antzeko gauegin daitezke, baina eusl hitz bukaerak flexionatu e klinatu egiten direnez ask euskarak eman dezakee no askoz gutxiago emate dute honelako hiztegiek. Guk, Ixa taldeak, sortzaile morfologikoa egin genuenez, hori egokitu, alderantziz jarri eta bukaera bat emanda bukaera horrekin bat

datozen bukaera guztiak topatzeko bilatzailea egin dugu. Horrek baditu bere zailtasunak, errima ugari sortzen baitira. Horregatik, errima guztiak ezin direnez erakutsi, aukera bat egin behar da, lehentasunak markatu, errimak topatzeko zein aukera dau den adierazi... Azken finean hori guztia aurkezteko era txukun bat aurkitu behar izan dugu.

Beraz, aurretik egindako lanaz ere baliatu zarete.

Lan honetan lehendik egindako lan haundi bat bertsogintzara egokitu dugu. Euskarazko ia hitz guztiak datu base batean sartuak ditugunez, hori bera landu eta hitz horietatik deklinatuz eta atzizkiak jarriz sortu daitezkeen forma guztiak bildu ditugu bilatzaile honetan. Horregatik, zenbat hitz dauden esatea ia ezinezkoa da, ugari baitaude.

Bilatzaile honi aldaketarik egiteko asmorik ba al duzue?

Bai. Aurtan bertan beste ikasle bat ikasketa bukaerako proiektu bat egiten ari da eta programa hau hobetzea da proiektu horren egitasmoa. Bi hobekuntza nagusi izango dira: alde batetik gaikako tratamendua sartu nahi

da, hau da, bukaera bat eman eta horrekin bat datozen bukatuak topatzeaz gain, gai jakin bati lotutako errimak eskatzeko aukera emango luke horrek. Beste aldetik, bertso munduan errimak egiteko hotsak erabiltzen direnez hotsen kidetasun hori kontuan hartu eta horren arabera onargarriak izan daitezkeen errimak ematea ere lortu nahi dugu.

Bilatzaile honekin zer egiteko asmoa duzue?

Itxura aldetik eta aurkezpen aldetik hobetu ondoren Interneten eskuragarri jartzea da gure asmoa. Momentu honetan Informatika fakultatean daukagu baina aurrera begira denon eskura jarri nahi dugu. Guk, tresna honek bertsoak egin nahi dituenari edo zalea denari errimak topatzen lagun diezaiokela argi dugu. Beti esaten da bertsolari onei errimak besterik gabe etortzen zaizkiela, beste batzuk, berriz, zailtasun gehiago dituzte eta bilatzaile hau laguntza bat izan daiteke. Bertso mundua eta teknologia berria elkarrekin lotu daitekeela uste dugu.

Saria irabazi duen artikulua egitea erraza izan al da?

Lehiaketa honen xedea zientzialgazioa da. Gauza bat teknikoa egitea eta bertsolaritzarako gauzak

Guretzat ariketa intelektual izan da lan teknikoaren zailtasunak ulertu ezin diren norbaiti adieraztea. Ez dago teknizismoetan erori n horren muina azaltzen gure asmoa, nola latuta dagoen, zer den bertsolaritzarako baliabideak dituen, nola topatzen dituen

errimak... edozeinek ulertzeko moduan adierazten saiatu gara.





txeko berri


Josu Tellabidek herriko baserrien inguruko azterketa egiten dihardu

Herriko baserrien inguruko azterketa egitera goazela esan eta batek baino gehiagok hau kontu zaharra dela pentsatuko du, aspalditxo baitago azterketa hau gure egitasmoen barne. Hasiera batean, duela hiru urte, Ziortza elkarteak hasi zen lan honekin. Jende eta denbora falta zela medio, lan hau bukatzeke utzi zuen aipatu taldeak eta Josu Tellabidek hartu zuen lekukoa. Urtea hastearekin bat, Josu Tellabidek lanari ekin dio. Hala, baserriz baserri dihardu informazioa biltze aldera. Denetariko informazioa biltzeko asmoa du Josuk azterketa etnografiko eta soziologiko honetan; baserri bakoitzak erai-kuntza bezala duen balioa, bertan bizi diren edo bizi izan diren familien inguruko informazioa, bertako istorioak, pasadizuak, argazki zaharrak...

Guztira herriko 180 baserri aztertuko ditu lan honek. Gainera, aipatu beharra dago lan honek Udalaren babesa eta laguntza ere izango duela. Hemendik, benetan eskertuko genuke herriko baserriaren laguntza eta kolaborazioa. Izan ere, guztion artean lan txukuna osa baitezakegu. Aurreikuspenak betetzekotan, aurten bertan izango dugu eskuartearen lan hau. Hala bedi!



Koadernatu 2000.urteko Noaual guztiak (81-103)



Zein dira eman beharreko pausoak?

□ Hartu 2000. urteko Noaual hamaboskariaren ale guztiak (81-103) eta ale honekin batera banatu dugun aurkibidea eta joan zaitez Noaual Kultur Elkartearen egoitzara, Laurok-era edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 2000. urteko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko agindu.

□ Noaual Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala doan izango duzue. Bazkide ez zaretenok, berriz, azalarengatik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea, berdin, besteok bezala.

□ Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.

Udarregi ikastola eta Parrokiko Pauzoz-pauso Medicus Mundirekin

Gipuzkoako 92 ikastetxek bat egin dute Medicus Mundik "DBHkoentzako zinea" izenarekin antolatutako ekimenarekin. Hauen artean daude Udarregi ikastola eta Salvatore Parrokiko Pauzoz-pauso taldea ere. Proiektua DBHko 4. mailako gazteei zuzenduta dago eta gazteen artean elkartasunezko baloreak sustatzea du helburu.

Medicus Mundik "DBHkoentzako zinea" hezkuntza proposamena 1999an jarri zuen abian Gipuzkoan. Ekimen hau sortzearen arrazoiak gazteak elkartasunezko baloreetan hazteko lanabes erabilgarri eta eragingarria eskura izatea zen. "DBHkoentzako zinea" ekimena (euskaraz, gaztelaniaz eta elebidunez) pelikula bat eta gida praktikoa ezberdinez osatutako mailetan oinarriturik dago. Orain arte 92 ikastetxek erabili dute maleta hau beren DBHko 4. mailako ikasleekin.

Medicus Mundik bi fasetan garatu du ekimen hau. Lehenengoan, 1999-2000 ikasturtean, maleta pedagogikoak "La promesa" Luc y Jean Pierre Dardenneren pelikula zuen oinarri eta bertan gure inguruan etorkin ilegalek lanean duten errealitate latza erakusten zen. Bigarrenean, ikasturte

honetan zehar (2000-2001), David Wheatleyen "La Marcha" pelikulak gosez hiltzera kondenatuta dauden Sudango milaka errefuxiatuk Europarantz hasitako ihesaldia deskribatzen du.

Bi ekitaldietako gida didaktikoak pelikula ikusi ondoren bertan garatutako gaiak eremu posible guztietatik aztertzeke diseinatuta daude (zeharkotasuna): gizarte zientzietatik matematiketara edota musikatik natur zientzietara. Maleta bakoitzak hainbat gida ezberdin ditu, eta errealitatea aztertzerakoan ikasleengan ikuspegi kritiko eta gogoetatsua sustatzea da hauen helburu nagusia.

Irakasle eta gurasoek gure munduan dauden injustizien aurrean gazteengan konpromisozko jarrerak sortzen lagunduko zuen materiala behin eta berriz eskatzen zutenek, Gipuzkoako Medicus Mundik "DBHkoentzako zinea" ekimena burutzea erabaki zuen. Beraz, arrazakeria, xenofobia, pobrezia, ezberdintasuna eta norberekeria sustatzen duten etengabeko estimulu kultural, sozial eta politikoei emandako erantzuna izan nahi du ekimen honek.

Medicus Mundirentzat pertsona guztiekiko begirune gehiago izango duten egitura sozial, ekonomiko eta politikoa ezartzearen aldeko borrokan funtsezkoa da sentsibilizazio eta hezkuntzazko ekimenak garatzea.

Josu Aranberri



TABERNA-JATETXEA

ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

TXURRUT

TABERNA



t mus k ts n

San Esteban kalea, 1
TEL: 943 36 00 30

**Xabier Pikabea**

- ☐ Aseguru egilea
- ☐ Euskara zalea

Euskara zorrozten

Gaur idatzi asko eskuratzen dugu. Aleka batzuk, txukunak; beste batzuk, erdipurdikoak; asko eta asko, ordea, mingarriak.

Zuzentasunik gabeko idatziak ulergaitzak izan ohi dira. Egokitasunik gabekoak ere bai, bederen.

Idatziak txukun eta argi idazteko nahitaezko bi baldintza, hortaz: zuzentasuna eta egokitasuna.

Segalariak sega bezala, idazleak ezinbestekoa du, tresna modura, bere hizkuntza mezuak emateko eta adierazteko. Hizkuntza-tresna honek, ordea, badu bestetarik berezitasunik: gizartearen izatea.

Hizkuntza gizakiak osatu du. Mendez mende eta gizaldiz gizaldi, euskal gizartea izan da bere mintzoa, euskara, osatu eta garatu duena; poliki-poliki arauak ezarri, gramatika sortu diona.

Idazleak, hortaz, gramatika horretara makurtu beharra dauka zuzentasunez idatzi nahi badu behintzat; baina horretarako derrigorrezkoa da beraren ezagutza izatea; bestela, bertako arauak nola aplikatu? Pikondoari sagarrak eskatzea bezalaxe izango litzateke.

Ondo idazteak janzkiak egitearekin badu parekotasunik. Badu hala-ko antzik.

Dantzari-arropa egitea eskatuko bagenio, jostunak xehetasun hauek beharko lituzke kontuan:

- Neurriak.
- Joskera.
- Moldeak.

Neurriak: pertsona bakoitzari dagokiona: ez estuegia, ez lasaie-

gia eta ez luzeegia.

Gizartean maila askotakoak gaude: haurtxoak, helduak, zahar-
rak, gizonezkoak, emakumezkoak... Hortaz, nori bere tamaina edo mailan zuzendu behar zaio, esateko: ez da batere egokia, nola, ba! haurtxoei eta zaharrei trataera bera ematea.



Joskera: janzkiak piezaka osatu ohi dira. Bata besteari josita. Eta, jakina, joskera onak ematea sekulako garrantzia du, bestela gutxien ustean tarrat egin baitezake; horretarako, aurrez aipatu bezala, derrigorrezkoa da gramatikaren ezagutza; derrigorrezkoa bertako arauak ondo-ondo ezagutzea, idazleak hitz-joskerak txukun osa ditzan.

Moldeak: zer pentsatuko genuke agindutako "dantzari-arropa" "torero traje" egituraz emango baltzaigu? Zein dotore ezta? Horrelako jostunari senagabea deituko geniokeela ez dut dudaren izpirik.

Hizkuntza bakoitzak ditu bere moldeak, bere espresabideak; bakoitzak bere adierak eta foma. Batean "xaltxa" dena, bestean "xoxoa" dakiguke. Honetan "gazia" dena, hartan, aldiz, "geza"; horretarako idazleak hizkuntzaren sena beharrezkoa du. Sena horren larretik bazkatzen ez den idazlearekin: jai.

Hemengo "Euskara Zorrozten" lanak honelakoak izango dira: morfologiari, hiztegiari, ortografiari eta joskerari dagozkionak: atal horietan Usurbilen, bai mintzamenean, bai idatzietan ematen diren akatsak eta okerrak zuzenduz.

Besterik gabe, bide honetan zure lagungarri izan nahi dut. Hala gertatuko balitza, ni pozik.



Bertsoak

Donostian 1993ko urriaren 22an, Antiguako Lugaritz etxean, Joxerra Gartzia gaijartzailleak honako gaia ipini zion Andoni Egañari bakarka kanta zezan.

Gaia: “Justizia andrazko eta itsu irudikatu ohi ditek; zergatik?”


Justizia da emakumea
ez gizonezko galaia,
hori zergatik esplikatzeko
iritsi zaigu garaia,
aldez aurretik andreak beti
zalantza eta ezbaia,
ondoren berriz erabakia
zuzena eta lasaia,
eta gainera emakumeek
berezkoa dute epaia. (bir.)

Begi aurrean jartzen diote
bendajea edo tela,
hau ikusita hala juzgatu,
gerta liteke bestela,
zoritxarreen nik pentsatzen det
sarri nahikoa ez dela,
haurtxo txikiak itsu jokutan
egin ohi duten bezela,
seguru nago epaile askok
tranpa egiten dutela. (bir)

Balantza bat e(re) badu eskuan
hortan deskuidatu zera,
hortaz badakit ni libra bainaiz
jaiotzaren arabera,
balantza batek izan ditzake
makina bat gorabehera,
trukaturikan ez ote dauden
hori da nere galdera,
gehientsuetan iraultzen dira
boterearen aldera. (bir)

Doinua: “Aita izena kanta beharra”

Lehiaketa



**Zer falta da, zer dago
soberan argazki honetan?**

**Irabazleen artean Bordatxo
tabernan bi pertsonentzako
afaria zozketatuko dugu.**

Aurreko argazkia



...eta erantzuna



104.aleko irabazlea: Josu Alkorta Matxain

A genda

URTARRILAK 27 larunbata

- **Herriko elkartearen arteko III. Mus Txapelketaren finala** jokatu da Mahaspildegi elkartearen.

URTARRILAK 29 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

URTARRILAK 31 asteazkena

- **"Umearen garapenean dauden hunkipenak eta sentipenak" hitzaldia** Karmen Maganto psikoterapeutaren eskutik. Udarregi zaharrean arratsaldeko 18.00etan. Antolatzailea: Guraso eskola.

OTSAILAK 4 igandea

- **Santa Ageda bezperako eskea** Bota Punttuba bertso eskolak antolatuta. Eguerdiko 12.00etan irtengo da eskea frontoi atzetik.

OTSAILAK 5 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

OTSAILAK 8 osteguna

- Aitzaga elkarteak antolatuta **Itoitz-ko urtegiari buruzko hitzaldia** Aitzagako aretoan arratsaldeko 19.30etan.

- Parrokiko dorrearen berri-
tzea dela eta **"Parrokia eta dorrearen arte balioa" diapositiba emanaldia** Edorta Kortadiren eskutik. Parrokian arratsaldeko 19.30etantik aurrera.

OTSAILAK 10 larunbata

- Parrokiko dorrearen berri-
tzea ospatzeko ekitaldia dema plazan dorre aurrean.
19.30etan: **zenbait kanpai errepika, dorrearen zehaztasun batzuk emango dira, argiak piztea, bertsoak, eskertza eta Irri abesbatzak "Usurbilgo Elizaren hormak" atia abestuko du.**
20.00etan **Eukaristia.**

OHARRAK

- ✎ **Neska bat eskaintzen da goizez haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo adineko jendeari laguntzeko.** Harremanetarako telefonoa: 943 83 39 74

- ✎ **Pisua alokairuan hartu** nahi genuke Usurbilen. Telf. 943 36 02 13 (Yolanda edo Iñaki)

- ✎ **Irakasle espezializatuek klase partikularrak ematen dituzte** Usurbilen bertan. DBH, Batxilergoa, zientziak nahiz letrak. Esperientzia. Interesa duenak deitu 943 36 52 89 telefonora (Koro).

- ✎ **Neska bat behar da etxekolanak egin eta haurrak zaintzeko.** Deitu 943 37 29 38 telefonora (gauze).

- ✎ **Kabalgata ekitaldian pis-zinako gauzez betetako motxila bat galdu zitzai-gun** frontoian. Aurkitu duenak 943 37 27 76 telefonora dei dezake.

HITZALDIA

Umearen garapenean dauden hunkipenak eta sentipenak

Hizlaria: Karmen Maganto psikoterapeuta

Eguna: Urtarrilak 31, asteazkena

Ordua: 18.00etan.

Lekua: Udarregi zaharrean

Antolatzailea: Guraso eskola

PATRI

J A T E T X E A
E u n k z k r k
t f r k

N 15 217 33 1
33 27 25 (G LK)


MAHUKA
BEHERRADENAK 10% 50 ean

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Iturburu kalea, 3-02 943 36 11 06

Kale Nagusia, 18, USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO



**Txotxetik
sagardoa
jarraitu
usadioa**



Santuenea

**Tel.: 943 36 50 31
Mobila: 670027731**

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK


Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TEL: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67



**TXIMINIA
ALTZARIAK**



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

**Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia**

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

AGINAGA



Aginaga, Telf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan


Egin txotx!

Herriko

tolare

sagardotegietan!

ILLUNBE



Tokoalde, Telf; 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

iruin



Zubieta, Telf; 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR



Kalezar, Telf; 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.

URDAIRA



Aginaga, Telf; 943 37 26 91
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik.